



DANI BLANCO

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦

Gabonetako topikoka zopa

TOPIKOA DA Gabonak, topikoz jositako festak direla aipatzea. Ez da txarra, ordea, topikoei tartea uztea, bizitzeko mesedegarri badira. Gabonetako topikoen sorkuntzan bi tradizio handi elkartzan dira. Kosmikoa, Harri Aroko sozietateetan sortua, egunak laburtuz doazela konturatuta, eguzkiari berriro argiaren itzulia eskatzen diona. Bestea, aro kristauko IV. mendean sortua, urtearen egutegi liturgikoa egokitzean, argi eta itxaropen hori Jesukristorekin identifikatu eta bere jaiotza solstizioaren egunean kokatu zuena. Topikoa ere bada kristautasunaren identifikazio hau makurtzat ematea. Bestela ere begira liteke, etxea egokirotu pintatu eta berrituta utzi duenaren miresmenetik.

Eguberrietako beste topikoa da ekartzen duten tristeziarena. Gabonetan mahai inguruko hutsuneak agerikoak dira. Bizitzaren gurpilaren gogorapena besterik ez da hori. Luzera, tristura handiagoak ekartzen ditu gurpil horren errealitateari ez begiratu nahi izateak.

Festa erabat komertzialak direla topiko errepikatua da. Urteko beste sasoi guztiak, haatik, horrelakoak dira egun. Samurtasuna eta zintzotasuna egun batzuetarako dekretuz ezartzen zaizkigula purrustatzea ere sarri entzuten dugu. Ez legoke gaizki horrela izatea eta ikerkuntza zientifikoak formulari erre-

paratzea urte osorako luzatzerik ote legokeen aztertzeko.

Topiko berriak edo berrituak sortzen ari gara eten-gabe. Euskaldunon artean deigarria izan da Olentzeroren azken urteotako bilakaera supersonikoa. Mutil zahar arlote pipazale mozkor eta sarramuskatzaile izatetik aitona bizar zuri txukun, adeitsu, opari banatzaile eta *waltdisney*tarra izatera. Azken orduko ekarpenak, genero berdintasun azalekoaren izenean, emaztea edo laguna kokatu dio ondoan, Mari Domingi, zarpailatik dotorerera ekarri ondoren. Gure artean topikoa denez, hamaika txiri-buelta dialektiko plazaratu dira honen inguruan. Niri ez zait gustatu bihurketa osoa. Egungo inozokeria sozial garailearen eraginez (haurren

Egungo inozokeria sozial garailearen eraginez tradizio kristauak zuen ederrena ahazten da

arloan garaile baino areago *agintzaille*) tradizio kristauak zuen ederrena ahazten delako. Argia eta itxaropena ez direla etorriko boteretsu eta euren jarraitzaile kaka-jaleengandik, Olentzero eta Mari Domingi bezalako pobre eta baztertutakoen eskutik baizik. Egunotako topiko berrikuntzan ia izenak besterik ez diegu mantendu, artalde otzanera ekarri ditugu euren irudi eta izaera.

Erne, abertzale jendea, topiko zopa honen sukaldari gehienak: laster Olentzero eta Mari Domingi hauek PPri emango diote botoa. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Txik eta txok

NEOLIBERALISMOA jendearen funtsezko askatasunarekin ez dator bat. Gehiengoa biluzten duen egiturak boterean irauteko manifestatzeko, oldartzeko eta egoerak salatzeko eskubideen murrizketa eskatzen du derrigor hondarrean diktadoreak jartzen dituela gobernatzan. Estatu kolperik gabe aldion, hauteskundeatarik aterako baita burnizko ahurraz manatuko gaituen gizon-hautatua.

Begiak ixten baldin baditugu aitzinean ditugun hilabeteak gogorak, larrutzaileak, katastrofikoak itxuratzen ditugu. Aukerarik ez dugu, aterabiderik are gutxiago: 1.000 esker Pavlov eta elektrotxoke ongi-etorriak.

Salbatuko diren bakarrak gure artean beldurra, ahalkea eta ibai orokorraren isuriarekin ez doazenenganako mespretxua hedatzen dutenak dirate. Jomugan daude Lampedusan hilotzu arrotzak, abortatzeko dretxoa kentzen zaien emazteak, zafratzen diren homosexualak, eriak, langabetuak...

Dostoievskiren idiota izan behar litzateke 2014 urtean zorionaren dasta, bizitza eta pentsamendua aldatzeko gogoia, irria ezpainenetan eta bakea bihotzetan ukanen dugula irudikatzen. Edo Bruce Springsteen.

Dream baby dream. ■

